

## **EUSKALTZAINDIA KULTUR MINISTROAK DEITUA**

Euskaltzaindiak Kulturako Ministro den Javier Solana jaun txit agurgarriaren deia hartu zuen 1983ko Uztailaren bukaeran eta baiezkoa eman ondorean Irailaren 22.a hautatu zuen bisitarako. Egun horretan Fr. Luis Villasante, Enrike Knörr eta Juan San Martin errezibitu zituen, Euskaltzainburua, Diruzaina eta Jagon sailburua hain zuzen.

Ministro jaunaren gogoko zen Euskaltzaindiaren egoera, ekintzak eta premiak ezagutzea. Horregatik, Oiñatin 1918. urtean egin zen batzarraren berri eman zitzaion, handik nola sortu zen erakunde hau eta geroztik Araba, Bizkaia, Gipuzkoa ta Nafarroako Diputazioen babespean nola jarraitu duen. Erakunde ofizial bezala, Euskaltzaindiaren arautegia eta egitura zer diren, Iker eta Jagon sailen izateaz, lanerako batzordeen organigramaz eta abar. Gudak sortutako etena eta gudaondoreko urte neketsuena, laguntzarik urri eta beharra ugari. 1976. urtean Erret Dekretuz onartzea nola etorri zen eta geroztik hartzen dituen laguntzek eman dioten bizkortasuna, baina hizkuntzaren premia handiak erakutsiz.

Erakunde ofizialekin ditugun harremanen artean bereziki azpimarratu zitzaion Hezkuntza Ministeritzarekin izan ditugun harremanak. Beste Akademiekin eta Euskal Katedradun Unibertsitateekin ditugun harremanak eta abar.

Aurrera begira ditugun proiektu nagusiak zer diren: Bizkaiko Foru Diputazioak agindua duen etxeberrian behinbetiko egoitza jartzea bulego, agiritegi eta biblioteka egoki jartzeaz gainera, mikrofitxadorea, bere irakurgailuz eta fotokopiodoraz jartzea. Agiritegi eta ikerketetarako hain beharrezko ikusten dugun ordenadorea jartzea, has-teko zorian garan Atlas Linguistikoa aurrera eroatea Eusko Jaurlaritzak horretarako eskaintzen digun diru laguntzaz, Dialektologia ikerketak bultzatzea, sozio-linguistika estudioak gaurkotzeaz. Hiztegi orokorra egiteaz, Gramatika normatiboa bideratzeaz, Euskararen Lekukoak liburu sailaren jarraipenez, sorketazko literatura indartzeaz eta abar.

Premia horien arabera, dirulaguntza fijo hobetzeko Hezkuntzako Ministroari ber-berak egingo zion eskariaz gainera, berak subentziaz laguntzeko gogoia agertu zuen eta Euskaltzaindiak, etxeberrian bere egoitza, agiritegia eta biblioteka atontzeko beharrezko zuenaz aparte ordenadore bat erostearen eskaria egin zion.